

GIL 102 Pikoteko luizien itsasertzeko multzo geomorfologikoa



Pikoteko luizien panoramika, itsasotik.

Kokapena

- **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 43° 17' 47,7 '' N
Long.: 2° 16' 31,1'' W

- **UTM koordenatuak:**

X: 558.775,00 m
Y: 4.794.008,00 m



Nola iritsi

Zumaiatik, joan autoz San Telmo ermitaraino, eta jarraitu oinez bidezidor batetik Algorri puntaraino (NW norabidean, itsaso aldera), Algorriko kala txikira iritsi arte. Handik, joan oinez abrasio-plataforman zehar 500 bat metroan hego-mendebalderantz, luizietara eta harkosko-hondartzara iritsi arte.



Algorri-Pikote inguruko marearteko zabalgunea. Hainbat elementu geomorfologiko ikus daitezke; besteak beste, labarrak, bloke handi eroriak, uharriak, harkosko-hondartzak, luiziak, lurmuturrak, senadiak, etab.

GILaren deskribapen laburra

Elementu interesgarri askok osatzen dute Pikoteko luizien multzo geomorfologikoa.

80 m baino gehiagoko labar bertikalari itsatsitako bloke batzuen kaos handi bat osatzen dute Pikoteko luiziek. Oinarrian, 15 m baino altuagoko aurrealdea du luiziak, eta itsasoak higatzen du. Aipagarriak dira, orobat, Algorri inguruko luizi txikiagoak. Gehienak nahiko berriak dira, eta flyscharen geruzen ezegonkortasunagatik sortzen dira. Ezegonkortasun hori, bestalde, estratifikazioaren bertikaltasunak, materialen kompetentzia txikiak eta hausturak egoteak ere baldintzatzen dute. Geruzaz geruzako irristatzeen ondorioz eta kostaldearekiko paraleloan gertatzen diren hausturen eraginez sortzen dira luiziak.

Luizien oinean dagoen marearteko zabalgunea Kantauri itsasoko marearteko zabalgunea handienetako bat da. Marearteko zabalguneen eraketako elementu geomorfologiko tipiko guztiak ikus daitezke haren gainean (ezponda hondeatuak, uharriak, gainazal leunduak...). Itsaspeko kartografia xehatuan, sei maila bereizi dira 6 km-ko distantzian eta 90 m-rainoko sakoneran.

Atentziona ematen du Aitzuriko senadiko harkosko-hondartzak, EAE osoko handienetako bat baita, eta bereziki interesgarria da goialdean gainazal horizontal bat dagoelako, zeinak marearen mailarik altuena markatzen baitu. Maila horretan, olatuak gai dira uharriak —0,2 m eta 1 m bitarteko tamainakoak— mugitzeko.

Azkenik, nabarmentzekoak dira Andikaerrekako ur-jauzia eta haran esekia —haran eseki baten adibide bikaina—. Labarrak azkar higatu ziren, eta atzera egin zuten, eta ibilgu laburreko errekaak, berriz, higatzeko gaitasun txikia zuen; fenomeno horien ondorioz osatu zen haran esekia. Labarrean ikus daitekeen faila-sistema baten aldera osatu da Andikaerrekako harana.

Behatzeko punturik onena



Pikote inguruko harkosko-hondartza handia, Andikaerrekako ur-jauzitik. Goiko aldean, plataforma horizontala ikus daiteke, zeinak marearen maila altua markatzen baitu.

Behatzeko puntu optimoa luiziaren oinean dago, Andikaerrekako ur-jauzian, baina hara heltzeko bidea arriskutsua da.

Behatzeko puntu irisgarri onena

Algorriko behatokia, erabat irisgarria, behatzeko puntu gisa. Gaur egun, interpretazio-panel bat dago han.

Erlazionatutako GILak



Andikaerrekako haran esekiko ur-jauzia. Lehen planoan, marearteko zabalgunea estaltzen duen harkosko-hondartza ikus daiteke, eta, hondoan, Zumaiaiko K-T muga ezaguna, gorrixka.

- **Geografikoki:** GIL 23, GIL 25, GIL 27, GIL 28, GIL 43, GIL 45, GIL 48, GIL 101, GIL 103, GIL 119, GIL 135.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 95, GIL 99, GIL 100, GIL 101, GIL 103, GIL 104, GIL 105.

GIL-aren balorazioa

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
Interes zientifikoa	Geomorfologikoa				●
	Hidrogeologikoa				
	Tektoniko/Estrukturala				
	Estratigrafikoa				
	Paleontologikoa				
	Petrologikoa				
	Mineral-hobiak				
	Beste batzuk				
Interes ekonomikoa (erauzketa)			Iraganean	Potentziala	Martxan
Interes kulturala:					
Oharrak:	Eremuak, halaber, interes estratigrafiko eta paleontologiko handia du. Izan ere, EAEko Goi Kretazeoko flysch kareduneko sekziarik onena da. Dena den, flyscha GIL 28n aztertuko da.				

Bibliografia espezifikoa

- Hilario, A. (2012): *El biotopo del Flysch*. GFA.
- Hilario, A. et al. (2010): *Flysch Algorri Mendata*. GFA.